EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

AMIANTOAREKIN ERLAZIONATUTAKO GESTIOEN INGURUKO MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko irailaren 19an Lurraldearen Garapen eta Planifikazio batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Amiantoa oso agente arriskutsua da, gaitz larriak eragin ditzakeena eta lan egoera askotan presente dagoena. Alde horretatik, arazo handia da amiantoa –asbesto, uralita edo zuntz zementu ere deitua– ez ezagutzea. Langile asko aritzen dira amiantoaren eraginpean lanean. Mantentze-lanetan eta kutsadura kentzeko sektoreetan gertatzen da batez ere hori, baina beste langile batzuk ere egon daitezke haren eraginpean (teilatu-emaileak, argiketariak, berokuntza instalatzaileak, antenazaleak, iturginak…).

IERK/
CIF
P2007
4002A/
TEDR
PL
0120
6894
10655
RT
2011-
06

Esposizio mailei, latentzia aldiei eta gaixotasunen garapenari buruzko azken ikerketek diote esposizioa oso txikia izanda ere, latentzia aldia luzea bada, amiantoarekin zerikusia duten hainbat gaitz etor daitezkeela. Beraz, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpenak dioen bezala, “amiantoaren eraginpean jartzea arriskutsua da herritarrentzat, oro har”.

Joan den legealdian, amiantoaren arazoari buruzko bide bat lantzen hasi zen Udala, eta beharrezkotzat jo zuen amiantoa agertzen denean Udalak nola jarduten duen eta zer jarduera protokolo dituen aztertzea eta berrikustea. Orobat, ezinbestekotzat jo zen, departamentuen eta beste batzuen artean, gure hirian amiantoa duten eraikinen edo higiezinen mapa edo errolda bat egitea; horretarako, hori prestatzeko aurretiazko lanak egiten hasi zen Udala.

Bide honi jarraituz, 2016eko apirileko udalbatzan aho batez onartua izan zen kontrol mozio bat aurkeztu zuen EH Bildu udal taldeak, hurrengoa eskatuz:

1.- Gure hirian amiantoa duten eraikin edo higiezinen errolda edo mapa bat egitea.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2.- Amiantoaren eraginpean egoteak osasunerako izan ditzakeen arriskuen edo eraginen inguruan informatzea eta prestatzea amiantoa duten eraikinetan edo instalazioetan jardun behar duten udal langileak.

3.- Udal eraikin edo lursailetan dagoen amiantoa deuseztatzeko eta kentzeko programa bat prestatzea, lehentasuna emanda egoerarik okerrenean daudenei edo bizitza erabilgarria amaitua dutela ezagun dutenei.

4.- Herritarrak amiantoa deuseztatzearen eta jarraibideak betetzearen komenigarritasunaz sentsibilizatzea.

Hain zuzen ere, laugarren puntuan aipatzen den herritarren sentsibilizazioan, oso garrantzitsua da ASVIAMIE elkarteak egiten duen lana. Esate baterako, uztailaren 6an Berabera pasealekuko 88. zenbakian bizi den emakume batek EH Bildu udal taldeari deitu zion, ASVIAMIE elkartekoek Udalarekin harremanetan jartzea gomendatu ziotelako.

Emakume honek adierazi zigunaren arabera, bere eraikinean amiantozko tximinia dago eta hainbat bizilagunek tximinian eragina duten obrak egin dituzte. Aipatu zigunaren arabera, Hirigintza Departamentuan hainbatetan adierazi du bere kezka gai honen inguruan, baina ez du erantzunik jaso.

Dei hau jaso eta gero, Hirigintzako zinegotzi ordezkariarekin zuzenean hitz egitea erabaki genuen. Hark adierazi zigun gaiaz arduratuko zela eta emakumearekin harremanetan jarriko zela. Abuztuaren 22an emakume honen deia jaso genuen berriro ere. Bigarren aldiz kezka adierazi zigun udaran ez zuelako deirik jaso Udaletik. Hau ikusita, geure harridura adierazi genion eta zinegotzi ordezkariari eskatu genion, bigarren aldiz, emakumearekin harremanetan jartzeko.

Irailaren 19ko batzordean zinegotzi ordezkariak barkamena eskatu zuen gai honi behar duen lehentasuna ez emateagatik eta irailaren 16an teknikari bat eraikinera bidali zuela adierazi zigun. Teknikariaren iritziz, bertako egoera delikatua da eta 2008an egindako obra batekin erlazionatuta dago, obra lizentziarik gabe egin zelarik.

Batzordean ordezkariari galdetu genion zein pauso eman dituen Udal Gobernuak apirileko udalbatzan onartutako lau puntuak aurrera ateratzeko, baina ez zuen inongo zehaztasunik eman.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari hiritarrek amiantoarekin lotutako eskaera edo salaketak aurkezten dituztenean, ahalik eta azkarren atendituak izateko mekanismoak martxan jar ditzala.

IERK/
CIF:
P2007
4002A/
TEDR
PE
0120
6897
10655
2011-
06

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari apirileko udalbatzan onartutako lau puntuak aurrera ateratzeko pausoak eman ditzala, neurriak eta prozesu zehatzak martxan jarriz.

Donostian, 2016ko irailaren 23an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

IERK/
CIF
P2007
4004J/
TEDR
PE
01200
6895
10655
n.r
2011-
06